

Kazetaritzaren eginkizuna

El Mundo del País Vasco, 1992-01-24.

Mario Vargas Llosa idazle ezagunak gogorazi digu oraintsu agertu den bere artikulu batean "Kazetaritza dela kultura demokratikoari biziki eusten diona". Egiazko askatasunean eгина den kazetaritzaren lanetan bizia den zerbait, ispilurutzen da, gertatzen dena. Ez du prentsa guztiak egia hutsa bilatuko eta esango, behar lukeen bezala; batetik, egi hutsa mundu honetakoa ez delako, onenean ere ikuspegia besterik ez baita; bestetik, prentsak erakusten dituen ikuspegi ezberdin horiek, onenean, ere, nahitaezko diren interes batzuetan kutsaturik datoz; eta okerreanean, berriz, bada salmenta laguntzeko eskandalagarri dena sistemaz zabaltzen dena ere. Halere, kazetaritzarako askatasun osoa bizi duen prentsak emango du gaingiro bateko kultura demokratikoaren batez bestekoa, eta irakurlea da azken finean, erosi ala ez, kazetaritzari bideak jarri edo ixten dizkiona. Hau gutxi dela esango du norbaitek, zeren eta engainatzen uzten den zozo asko baitago munduan, eta kazetaritza horiaren mende geratzen da; beste batzuk "bere" egia defendatzeko eskubidea dutelako, libre geratzen direla askotan egia ez dena ere sostengatzeko. Eta halaxe da. Baina ez da oraindik prentsa librea baino egiaren onerako sistema hoberik aurkitu. Inbento zaharra, zentsura da, begi bakarreko kazetaritza, eta honetatik libra gaitzala bizi dugun demokrazia ahul honek, egiaren eta justiziaren alde borrokatzeko askatasuna oraindik bermatzen duen honek oraindik itxaropenik sortzen digu eta; bestalde, ilunpe honetan geratzen da egiaren eta askatasunaren alde leialki borrokatzeko prest dagoen kazetaririk.